



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA: EUSKO JAURLARITZAK, ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FORU-ALDUNDIEK ETA EUSKALTZAINDIAK SINATU DUTEN ESPARRU-HITZARMENA, 2021-2024 ALDIRAKO BOST ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZARAKO OINARRIAK NAHIZ KONPROMISO MATERIAL ETA FINANTZARIOAK EZARTZEKO.

75/2020 LGAKZ - LT

I- AURREKARIAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak legezkotasun-txostena eskatu dio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honi, goiburuan aipatutako hitzarmenari buruz.

Eskabidearekin eta hitzarmenaren behin betiko zirriborroarekin batera, jasota daude hasierako zirriborroa eta memoria bana (hasierakoa eta gehigarria), Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak sinatuak, bai eta organo bidaltzailearen Aholkularitza Juridikoaren txostena ere. Horrekin batera, halaber, Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena bera, hitzarmena sinatzeko baimena ematen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1 i) artikuluan xedatutakoaren arabera egin da txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 7/2017 Dekretuaren 12.1.a) eta 14.1.a) artikuluetan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

Era berean, aipatzekoa da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusia Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua eskaintzen duen erregulazioarekin bat etorriz, aholkularitza juridikoaren funtzioaren barruan sartzen dela nahitaezko txosten juridikoa egitea, Eusko Jaurlaritzak sinatzen dituen akordio- edo hitzarmen-proiektu bakoitzari, erregelamenduz zehazten diren kasuetan. Erregelamendu bidezko garapena da, eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu



Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikulua dauka ezarrita txostenok nahitaezko direla.

II- LEGEZKOTASUNA

Txostenaren xede den zirriborroaren hitzez-hitezkoaren arabera, lehen klausularen arabera, honako helburua du hitzarmenak: *Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko lankidetzaren eta koordinazio-oinarri orokorrak ezartzea, bai eta alde bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoen alde finantzarioak nahiz materialak zehaztea, erakundeak gerora era jardungo duela eta aldian-aldian kargu hartuko zaiola ziurtatzeko.*

Hitzarmenaren xedearen deskribapen orokorra da hori, klausula berean askoz xeheago zehazten da.

Testuarekin batera doazen memorien edukiarekin bat eta Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza honetan dauzkagun aurrekariarekin bat etorritik, txosten honen mami den hitzarmenak duela bi hamarkada sinatzaileen artean hasitako lankidetzari bidea luzatuko dio. Lankidetzaren hitzarmen espezifikoen edo esparru-hitzarmenen bidez artikulatu da batzuetan, eta azken urteetan (2010-2014 eta 2015-2018) programa-kontratu esaten diegunen bidez, betiere Euskaltzaindiari finantza-egonkortasunaren bermea emateko aldera, zereginak behar bezala burutzeko moduan egon dadin.

Kasu honetan, argi eta garbi diru-laguntzei buruzko edukia duen esparru-hitzarmen baten figurara aukeratu dute –aurreikusitako helburuetarako egokiago den tresna, aurretik zeuden programa-kontratuarentzat baino–. Hala, alderdi sinatzaileak berriz ere finantza-konpromisozko testuinguruan jarri dira, administrazio sinatzaileek beren gain hartutako konpromisoagatik, eta horren barruan obligazio batzuk ere bete behar dira, baina Euskaltzaindiak bakarrik, diru-laguntza izendunaren azken onuraduna delako.

Horrela, hitzarmena osatzen duten hamalau klausulen bidez, alderdien konpromisoak ez ezik, honako alderdi hauek ere zehazten dira, besteak beste: diru-laguntza ordaintzeko prozedura zehatza, Jarraipen Batzordea eta Batzorde Teknikoa eratzea, haien osaera eta

eginkizunak ere zehaztuta, hitzarmena suntsiarazteko eta zenbatekoak itzultzeko arrazoiak, hitzarmenaren izaera eta indarraldia, eta haren kudeaketaren erantzukizuna nor izango duen.

Azken batean, gure ustez, hitzarmenaren zirriborro hau bi oinarritan bermatu nahi da: bai Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen aurreikuspenetan, tipologiari eta edukiari dagokienez, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko laguntzen eta dirulaguntzen araubideari dagokionez.

Bada, nahiz eta txostena egin behar zaion hitzarmenaren zirriborroak hasierako zirriborroko zenbait akats konpondu (aholkularitza juridikoaren txostenean hala jarri da agerian), eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak aurrerago egingo duen txostenak aztertuko baditu ere, ekonomia- eta aurrekontu-kontrolaren ikuspuntutik, hitzarmenaren baldintzak, zenbait ohar egin behar ditugu aztertutako testuari buruz, txostena eskatu zigun organoak kontuan har ditzan.

Lehenengoa, "*Aurrekariak*" izenburupean hitzarmenaren sarrera-zatia osatzen duten atalei buruzkoa da.

Izan ere, edukia irakurrita, badirudi ohartarazi nahi dutela hitzarmen berria sinatzeak lankidetzaren honetan etapa berri bat irekitzea dakarrela, eta etapa horretan, bertan ere hala dioenez, ezinbestekoa da "*beste urrats bat*" egitea aurreko akordioekin alderatuta, erakundeak bere finantzaketa bermatuta izan dezan, jarduera orok behar dituen ebaluazio-mekanismoak ezarriz (laugarren ataleko bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoak hemen adierazitakoaren adibide argia dira).

Jakina, ez legoke inolako eragozpenik atal horri emandako idazketari dagokionez, ez balitz testuak hitzez hitz kopiatu dituelako, -Aurrekariak- tituluaren bertan, 2015-2018 ekitaldietarako sinatutako programa-kontratuan sartu ziren atalen terminoak, bai eta, guk akatsik egin ez badugu behintzat, baita aurreko aldiko ekitaldiko hitzarmeneko terminoak ere.

Hori dela eta, komenigarria izango litzateke -hainbat urtez egindako finantzaketa-ahalegina ez gutxiesteko aldera-, aurrekariak berriztatzea; adibidez, aipatzea arrakastaz betea izan den lankidetzaren horrek zer emaitza izan dituen, eta erakundeak zer erronka izango dituen

aurrerantzean, begi-bistakoa delako erronka horiei aurre egiteko moduan egongo bada, behar besteko finantzaketa eduki beharko duelako, betiere, egoki jotzen diren ebaluazio-mekanismoen mende.

Bigarren oharra hirugarren klausularen edukiari buruzkoa da, "Erakunde sinatzaileek beren gain hartu beharreko betebeharrak" izenburukoa.

Horren arabera, zortzigarren klausulan araututako Jarraipen Batzordeak urtero zehaztuko ditu, erakunde publiko sinatzaileek berretsitako proposamenaren bidez, alderdi sinatzaileek ekitaldi bakoitzean beren gain hartu beharko dituzten betebeharrak.

Klausula hori ezabatu egin beharko litzateke, sinatzen duenaren iritziz. Bi arrazoi hauengatik:

Bat, haren edukiak nahasmen nabarmena sortzen duelako, bosgarren klausulak xehetasun handiz zehazten baititu Euskaltzaindiak bere gain hartu beharreko konpromiso guztiak, eta seigarren klausulak, administrazio publiko sinatzaileen konpromisoak.

Bi, espedientean dagoen aholkularitza juridikoaren txostenarekin bat etorritz, hitzarmenean bertan jasota ez dagoen inongo betebeharririk ezin dutelako bereganatu alderdiek, dagokion tresna juridikora jo gabe behintzat, eta aplikatu dakizkiokeen izapide guztiak bete ondoren.

Hirugarren oharra seigarren klausularen edukiari buruzkoa da: "Administrazio publiko sinatzaileen konpromisoak".

Organo igorlearen aholkularitza juridikoaren txostenak agerian utzi zuenez, Eusko Jaurlaritzaren finantza-ekarpena, guztira 5.040.000 eurokoa zen, eta jasotzen zuen espedienteari erantsitako hasierako memorian adierazitakoarekin bat etorritz, hitzarmenak aurreikuspen ekonomiko hori sartu behar zuela, eragindako aurrekontu-ekitaldiei zehazki zegokiena egozteko, finantzaketa hainbat urterako zela kontuan hartuta.

Izan ere, gogoan izan behar dugu honakoa xedatuta daukela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. d) artikulua:

“Aurreko artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren hitzarmenek, gutxienez, honako gai hauek jaso behar dituzte:

d) Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak, halakorik badago; eta haien urtekako denbora-banaketa adierazi beharko da, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera.”

Espedienteari erantsi zaion memoria gehigarriak aztergai dugun omisioa justifikatzen du; izan ere, gainerako administrazio sinatzaileek ez dute egokitzen jotzen eskatzen dugun aipamen hori egitea, ekarpen publikoek zenbateko eta izaera desberdina dutelako (batzuk urtekoak, beste batzuk urte anitzekoak), eta uste dutelako nahikoa dela hitzarmenaren zirriborroarekin batera doan hasierako memorian jasotako zenbatekoak eta banakapena zehaztea. Esan gabe doa justifikazio hori ez dela nahikoa adierazitako ondorioetarako.

Gure azken oharrak arrazoi sistematikoak eta araugintza-teknikako arrazoiak biltzen ditu.

Eta, hala, komenigarri jotzen dugu bigarren klausula (hitzarmena sinatu duten erakundeak) eta laugarren klausula (hitzarmenaren indarraldia) testuaren amaieran kokatzea, eta, haren edukiarekin bat etorriz, lehenengo klausulak hasierako zirriborroko izenburua – Hitzarmenaren xedea – mantentzea.

III- HONAKOA DA GURE ONDORIOA

Azaldutakoarekin bat etorriz, adierazitako oharrak aintzat hartuta, eta aurrez gogorarazita sinatuko bada, alde aurreko baimena Eusko Legebiltzarrari jakinarazi behar zaiola (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 59. artikularen arabera), aldeko txostena emango zaio Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko esparru-hitzarmenari, 2021-2024 aldirako bost erakundeen arteko lankidetzarako oinarri eta konpromiso material eta finantzarioak ezartzeko.

Hauxe da nik egindako txostena, zuzenbide-oinarri sendoagoa duen beste edozeinen mende jarria. Gasteizen, 2020ko urriaren 30ean.